

Noaia!!

www.noaia.com



Laster indarrean izango dira
aparkatzeko neurri berriak



Iritsi da eguna
Igandean flash mob erraldoia Zubietan

OSASUN GIDA 2011



**USURBIL
OPTIKA**

Entzumeneko aparatuek • Igarilekuko tapoiak, neurrira egindako
BEHERAPENAK, aguztitako bataurrekotan

Zubiaurrenea, 10. • ☎ 943 370 269 • 675 708 654

**50€-ko
BALEA**

BETAURREKO
PROGRESIBOETAN
(HOYA)





FISIOTERAPIA ZENTROA
Ibaiondo

**Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak**



Ola Kalea, 12 - behea, ezk. LASARTE - ORIA Tel / Faxo: 943 370 306



Kima
MASAJE LEKUA

-Kirol masajea
-Masaje terapeutikoa
-Kolonaren hidroterapia
(idortasuna eta haize arazoak hobetzeko)

☎ 943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA



**iturralde
botika**

Tomas Iturralde botika
R.P.S. Nº 88/07

- ✓ Maisu formulak
- ✓ Dermofarmazia
- ✓ Produktu Homeopaticoak

Borda berri 1, 20170 USURBIL ☎ 943 36 33 95

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

Albistea iruditan!!

Erregea, bufoiaren aginduetara...

Ez da erraza asmatzen. Igande Arratsalde batean hurbilduko al da baten bat? Hori zen NOAUA! elkar-teko kideon artean genuen zalantza. Gure harridurarako, uste baino jende gehiago bildu zen "Erregea eta bufoia" ikuskizunean.

Pasa den igande arratsaldean, Sutegi ez zen bete baina gutxi falta izan zen. Eta bertaratu ziren guztiak, barre algarra batean izan ziren: Ander Lipus aktorearen kontuekin eta Unai Iturriaga bertsolariaren kantuekin. Unai Elizasuk ondo baino hobeto gidatu zuen saioa, Usurbilen pil-pilean diren gaiak ere plazaratuz.



HIRU PROTAGONISTAK, IKUSKIZUNAREN AURKEZPENEAN.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltea	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 373 228	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 361 412	Oa botika	943 361 217	Telefonica	1004
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberi 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com

Jenduarreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Alaitz Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



JOXE PIÑAS

Martxoak 9

00h.15: Gaueko hamabiak eta laurden dira, martxoak 8a pasa berria alegia. Familia osoa lotan dago; senarra, emaztea eta lau urteko eta hiru hilabeteko alabak.

1h.00: Hiru hilabeteko alaba negarrez hasi da biberioia eske. Atsedean txiki baten ostean, berriro etxeko eginkizunak martxan hasten dira. Jaiki egin behar du, ura berotu eta uretan esne-hautsak nahastu. Bere bikotea lotan jarraitzen duen bitartean, bera magalean hartzen du alaba eta biberioia ematen hasten zaio. Pardela aldatu eta gero, goizeko hiruretan alaba txikia lokaraztea lortzen du.

6h.00: Jada lau ordu pasa dira azkeneko alaba txikiak esne-biberioia hartu zuenetik eta negarrez ari da, berriro presta diezaioten eske. Etorri da bere "hornitzailea", sehaskatik hartu du eta pausu berdina errepikatu ditu: magaletan hartu, biberioia entxufatu, pardela aldatu, lokarazi... goizeko zazpi eta erdiak dira, ez da berriro oheratzen.

Bitartean, bikotea jaiki egin da lanera joateko. Bulego batean egiten du lan, eguerdian bazkaltzera etortzeko ez du astirik, beraz arratsaldeko sei eta erdiak arte ez da itzuliko.

8h.00: Lau urteko alabari arropa eta gosaria prestatu dizkio, kalenturarekin dabil eta ez du gosalduta nahi. Borroka txiki baten ostean gosari erdia har dezala lortzen du, saiakeran jantziak zikindu ditu eta beste batzuk prestatu behar izan dizkio.

9h.00: Alaba nagusia haur eskolara eramateko bi alabekin atera da, ezin baitu txikia bakarrik utzi etxean. Haur eskolatik bueltan etxeko janariaren erosketak egiteko aprobeztatzen du: harategira joan, arrandegira, fruitu dendara, okindegira,...

10h.30: Alaba txikiarekin etxera iritsi berria da, hurrengo esne-txanda eman diezaion garaiz.

12h.00: Eguraldi eguzkitsua dago, labadora jartzeko egokia.

12h.15: Alaba nagusiaren bila haur eskolara doa, txikiarekin batera.

12h.30: Bazkaria prestatzen hasten da. Irratia piztuta duela,

gaueko afaria prestatzeko tartetxo hau aprobeztatzen du ere.

13h.30: Alaba txikia lasai dagoela eta arropa zabalduta eta gero, lau urteko alaba eta bera bazkaltzeko esertzen dira.

14h.30: Alaba nagusia haur eskolara eramaten du. Txikia bidetik negarrez doa jateko ordua iritsi zaiola eta.

14h.40: Etxera iritsi, biberioia berotu,... badakizue.

15h.00: Eguraldiak okertu egin du, eta euria hasi du. Arropa etxe barruan zabalduta behar du etxeko epeltasunarekin lehor dadin... baina lehenengoz alabari biberioia ematen bukatu behar du.

16h.00: Nahiz eta biberioia hartu, alaba txikiak negarrez jarraitzen du, haizeak edukiko omen ditu.

16h.30: Euria ari duenez oso deserosoa izaten da alaba txikia haur-kotxean ateratzea baina berriro alaba nagusiaren bila haur eskolara joan behar dutenez... Etxera bueltatzen dira hirurak, eguraldi honekin ezin baita parkean gelditu. Bazkariko trasteak garbitzen ditu.

17h.30: Liburutegiko arduradunek ipuin kontalaria saio bat antolatuta dute, 3-5 urte tarteko umeentzat. Hara eramaten du alaba nagusia, eta ordu beteko saio denez, bitartean Sutegi kultur etxeko beheko solairuan prestatu dituzten edoskitze txokoan haurtxoari biberioia ematen dio.

18h.30: Hirurak etxera bueltatzen dira.

18h.45: Etxeko atea irekitzen da, Ane da. Lanetik bueltatzen da. Atzo Mikelek emakume langilearen eguna ospatzeko opari bat eman zion bezala, gaur Anek, opari bat dakarkio berarentzat. Orain dela lau urte, Martxoak 9a Lan Banaketa Eguna bezala ospatzea erabaki zuten elkarrekin. Alaba nagusia jaio zenean, Mikel etxeko lanetaz arduratuko zela eta Ane etxetik kanpo lanean jarraituko zuela erabaki zuten. Data beraien egutegian izan ezik, ez da beste inon azaltzen... oraingoz behintzat.

19h.00: Ateri du, eta ageri da egunsentiko oskorria.

Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika !

Elkartasuna kereilatuekin

Gaur egun ez da erraza espresio Geskubidea, informazio eskubidea, kritika politikarako eskubidea gauzatzea.

Luisuari Ormaetxea Santsiñena, Usurbilgo alkatezarako hautagaia, eta www.h1usurbil.net webguneko arduradunak kereila kriminal bat dela-eta, martxoaren 16an epailearen aurrean aurkeztu behar izan dute. Beraiekin batera Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Andoaingo Hamaikabateko alkategaiak.

Delitua: Marian Beitialarrangoitiaren ohorea gutxietea.

Marian Beitialarrangoitiak horrela aurkeztu du bere burua: "Alcaldesa-Presidenta del Excmo. Ayuntamiento de Hernani" eta jarraian "La Sra. Alcaldesa

es asimismo un conocido miembro de la izquierda abertzale".

Ustezko delitua iazko ekainean gertatua omen zen herri horietako herritarren artean orri informatibo bat banatu zenean. Informazio orri hartan bailarako herri hauetan gertaturiko hainbat gertaeren aurrean "kritika politikoa" egiten zen umorezko ikutu batekin.

Delitua kontsideratzen du ere orri informatibo haren kopia bat www.h1usurbil.net webgunean denbora batean ikusgai egona izatea. Webgunea martxan izateak min egiten dio ezker abertzaleari.

Ezker abertzaleak auzitegiei beren ekinbide politikoa baldintzarik gabe egiten

uzteko eskatzen ari denean, beste alderdi bat, zenbait herritan oposizio gogorra egiten dion alderdi bat, hainbeste errefusatzeko dituen auzitegi horietara eraman nahi du, inkomodo zaiolako alderdi horren oposizio zuzen hori.

Bi urtetako gartzela zigor baten aurrean egon litezke kereilatuek, guztia kritika politikoa egiteagatik. Horrela bazterarazi nahi ditu ezker abertzaleak Hamaikabateko alkategaiak epailearen aurrera eramanez. Guk herritarren epaia nahi dugu, hurrengo maiatzean emango den epaia.

Besarkada bat kereilatu guztiei, bereiziki Luisuari.

Usurbilgo Hamaikabat

Joxe Antonio Altunaren omenezko hil-kaperara herritar asko hurbildu ziren azken agurra ematera

Joxe Antonio Altunaren omenezko hil-kaperatik jende asko pasa zen azken agurra ematera. Bi egunez irekita egon zen hil-kapera. Bigarren egunean, Ezker abertzaleak deituta, omenaldi xumea baina hunkigarria eskaini zitzaion 16 urtez alkate izandakoari. Udaletxe aurreko plazan aureskua eskaini zioten, bertaratu ziren senitarteko, lagun eta lankide izandakoen aurrean. Egungo alkate Xabier Mikel Errekondok hitz batzuk eskaini zizkion Altunari. Herrigintzan buruturiko lana goraiatuz, "Milesker eta adiorik ez!" hitzak eskaini zizkion Xabier Mikel Errekondok, bertaratutako txalo artean.



HIL-KAPERA UDALETXEKO PLENO ARETOAN JARRI ZEN.

"Herria maite huen eta herriak maite hau"

Xabier Mikel Errekondo egungo alkateak, Joxe Antonio Altuna alkate izandakoari zuzendutako idatzia eman zuen argitarara www.usurbil.net udal web orrialdean.

"Hi Joxantonio! Hikin hitzein bieit!

Hauetxek izan dira gutariko bakoitzaren lehen hitzak Joxantonio alkateari zuzentzerakoan. Horren ondotik, izan ziur, herritarren arazoa konponbidean zela.

Udala eraikin urrun eta hotzetik guztion etxe eta aterpe bihurtu huen. Hire alkate izaeran, orduak ez ditek atsedenik eman: Usurbildarren kezka eta arazoetatik gertu agertu haiz, hauei konponbidea emateko eskura hituen bitarteko guztiak jarritz. Herria xede, aitzinera eraman duk Usurbil, tinko. Tinko benetan, Madrilgo epaile juiziorik gabekoek bi urtez zigortu arteraino, alajaina!

1987tik 2003ra arte, ezkertiar, aberztzale eta euskaltzaleen ahotsa izan hintzen udaletxean, baina aldi berean, Usurbil ezin hobeto ordezkatu duk Gipuzkoan eta Euskal Herrian.

Denbora honetan, helburu handienak mailaz maila lortzen direla erakutsi diguk. Usurbildarrak hamarkadatan jasoko dik herriari eman dioana. Jakin baza-

kiagu eta erakutsi duk, Usurbil gogoan eta herria bihotzean eraman duana; Usurbildarrok ez haugu ahaztuko herritarren bihotzean iltzatu baihaiz betiko.

Herri gisa zenbat irabazi diagu! Eta oraindik ez gaituk jabetu zenbat galdu genian atzo, Joxantonio, hire heriotzarekin! Hire lanerako borondate eta grina, eta herria ulertzeko modua erdugarriak izan dituk bai niretzat eta baita udala ordezkatzan dugun guztiontzat ere.

Begi gorrituetatik, masail goritik behera isuria, bihotzaren pareraino, malko ezin garratzagoa, malko bat baino ez. Malko izoztua. Zastada zorrotza, barne erraietaraino.

Jose Antonio, herria maite huen eta herriak maite hau. Betirako alkate izango haiz guretzat. Sei mila usurbildarren sei mila esker eta muxu.

Xabier Mikel Errekondo".

Hamaikabat Usurbil eta EAJ-PNVren doluminak

Joxe Antonio Altunak urte asko egin zituen udaletxean. Horren harira, alderdi denek euren doluminak eman nahi izan dituzte.

Hamaikabat Usurbil alderdiak, bere web orrialdearen bitartez, honela zioen: "Jose Antonio Altuna Aizpurua alkate-

ohiaren ezusteko heriotzaren aurrean, Usurbilgo Hamaikabatek bere doluminak adierazten dizkio bere famili osoari".

Lourdes Jauregiberrik ere, EAJ-PNVren izenean, Joxe Antoniori familiari eta bere alderdikideei doluminak eman nahi dizkie.

Altunaren etxekoak: "Eskerrak, bihotzez"

Joxe Antonio Altunaren familiak Johar hau bidali du aste honetan NOAUA!ra, aldizkarian argitaratu dezagun. Lerro hauen bidez, "modu batera edo bestera guregana etorri zareten herritar eta adiskide guztioi" eskerrak eman nahi dizkiete. Hauxe familiaren oharra, bere osotasunean: "Eskerrak eman nahi dizkiogu Usurbilgo Udalarari. Benetan estimatzen dugu Jose Antoniori azken agurra emateko udaletxea eskaini izana. Alkatea, zinegotziak eta langileak, denak izan zarete oso adeitsuak gurekin. Herriko etxea gure etxea izan da.

Eskerrak, bihotzez, modu batera edo bestera guregana etorri zareten herritar eta adiskide guztioi. Zuen babesa eta beroa gurekin daramagu.

Jose Antonio Altunaren familia".

Usurbilgo Ezker abertzalea “Betirako alkate izango haiz guretzat”

Ezker abertzaleak, idatzi honen bidez, Joxe Antonio Altunaren ibilbidea goraiatu nahi izan du. NOAA!ra igorritako idatzi honetan dioenez, “bere urterik oparo eta emankorrenak Euskal Herriari eta Usurbili” eskaini zizkion.

“Gaixotasun latz eta krudel batek eraman du gure artetik Joxe Antonio Altuna. Inork ez du merezi hala amaitzerik, eta gutxiago Joxe Antoniok. Bere bizitzako urterik oparo eta emankorrenak Euskal Herriari eta Usurbili emanak, erretiro lasaia merezi zuen. Haatik, azken urteak ere borrokan jarraitzea egokitu zaio. Bizitzaren eta heriotzaren deman, gaitzak hartu dio gaina. Baina bere adorea eta kemenak gure artean jarraitzen dute, izan ere, aste honetan beste izar gorri bat piztu da Euskal Herriko zeru gainean.

Berak esana da: “Lau urterako hitza eman eta 16 egin ditut azkenean”. 1987. urtetik 2003ra Usurbilgo alkate izan zen. HB alderdiaren bidez iritsi zen alkatezara, baina herri honekiko konpromisoa ez zitzaion orduan sortu. Franco garaian zinegotzi izana, sindikalgintzan eta euskalgintzan buru-belarri aritu zen gerora. Aipagarria da Udarregi ikastola sortzeko berak eta beste hainbat herritarrek egindako lan eskerga. Herrigintza udaletik jorrazten jarraitu zuen, eta Euskal Herria, Usurbil eta usurbildarrak izan ditu beti bere lanaren iparroratz. Euskal Herriaren eraikuntzarako giltzarri diren Uema eta Udabiltzaren sorreran aktiboki hartu zuen parte, eta eredu-garria izan zen intsumisioaren alde egindako lana, horrek Espainiako Justiziaren jazarpena eragin bazion ere.



EZKER ABERTZALEAK OMENALDIA
EGIN ZION UDALETXE ATARIAN.

Urtebeterako kargugabetu zuten eta bitan atxilotu. Ez zuen agertu, ordea, inoiz damurik, eta tinko aritu zen ere euskal presoen eskubideen aldeko borrokan udalgintzatik.

Konpromisoa eta gertutasuna. Bere jardunaren ezaugarri eta bereizgarri izan ziren. Herritarrei entzuteko prest zegoen beti, bai bere bulegoan bai kalean. “Gogorra izan daiteke, baina horretarako gauda”. Joxe Antoniok garbi zuen hori, eta horregatik zuten ia herritar guztiak oso etxeke. Laguna.

Ehiztari eta sagardozale amorratua. Ez zituen ezkututzen zaletasun horiek. Baten batek esango du: “Usurbildar jatorren modura”. Kalea gustoko zuen, eta, batez ere, lagunekin txikiteoan aritzea. Eta beti zuen guztientzat hitzen bat, irriparre gozo bat edota animoak emateko bizkarrekoren bat. Usurbilgo mendi eta bazterrek ere ederki ezagutzen zituen. Ez zen arraroa mendi buelta ematen ikustea, makila eskuan zuela. Eta ez zen arraroa ere familia giroan ikustea, oso maiteak baitzituen emaztea, alabak eta bilobak.

Aparta izan zara Joxe Antonio. Agur eta ohore! Eskerrik asko danagatik, alkate! Ez adiorik, gero arte baizik, Usurbilgo ezker abertzalea”.

Aralar Usurbil: “Jose Antonio Altuna gogoan”

Herria saminez dago urte askotan Usurbilgo alkate izan genuenaren heriotzagatik. Herrigintzan inplikaturako gizona izan zen, herrikoia, maitatua, jarra-ira irekia zuena eta jendearen arazoekiko ulerkorra. Agintean egin zituen urteak gogorak izan ziren indarkeria bizi-bizi baitzegoen. Orain esperantzaz beteriko egunak bizi ditugu, etorkizuna soilik lan politikoarekin eraiki nahi dugulako eta hori da hain zuzen elkarrekin lan egiteko aukerak ekarriko dituen. Lastima gaixotasun zital batek etorkizun hori bizitzen utzi ez izana. Gure elkartasuna sendiari”.

Goyaran, PSE-EE: “Elkar errespetatzen jakin genuen”

Lau legealditan alkate izan zinen, Usurbildarrek hala erabaki zutelako. Zu eta ni oso urrun geunden politikoki, baina beti harreman ona egon zen bion artean. Baina gaur zureganako oroimena maila gizatiarrera mugatu nahi dut. Beti izan zenuen hitz on bat, eta irribarre konplize bat gehien behar nuen momentuan, ze elkarrekin bizi izan dugun garaia oso gogorra izan zen denontzat, baina elkar errespetatzen jakin genuen. Zuk eta nik bakarrik ezagutzen ditugu elkarrekin izan genituen elkarriketak. Beti gogoan izango dut, duela urte batzuk, gaixotasunak hartuta zeundela, frontoian elkar topo egin genuenean. *Ez zaitu ezagutuko* esan zidan batek, baina zure ondoan zenak galdetu zizun ea ba ote zenekien nor nintzen, eta zuk zure irribarrearekin erantzun, “noski, PSOEko Amaya”. Nik horrela nahi zaitut gogoan, irribarretsu, eta hainbeste maite zenuen zure familiari esan, 16 urtetan alkate izan zinela baina 69 urtetan pertsona ona izan zinela, laster arte eta bidaia on”.

ARRANDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tf 36 21 64
USURBIL

Poxpolin
MERTZERIA
943 36 82 06
Zubiaurrenea 3, baxua

**BENTA
TABERNA**
Oilasko erreak
Ogitartekoak
San Ignacio 1, behea
USURBIL 943 36 93 05

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K./ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

Elkar laguntza sustatuko du martxoaren 27an ospatuko den II. Truke Eguna

Truke Egunaren bigarren edizioa antolatu dute martxoaren 27an. Joan den iraileko edizioan bezala oraingoan ere ez da diru mugimendurik izango, ezta salerosketarik ere. Trukea baizik, objektuena, eta berrikuntza gisa, baita gaitasunena ere. Berrerabilpena eta elkar laguntza sustatzeko aukera izango da beraz, Txokoalden hilaren 27an.

Saldu edo erosi ordez, trukea sustatu nahi dute. Dirua ez, norberak truke gaiari emandako balioa nabarmendu. Saltzaile eta eroslerik ez da egongo, herritarrak tratatu zuzenean arituko dira. Guztia, merkatu batean izan ordez, plazan bilduta. Eguna hain barneratuak ditugun bizi ohitura eta kontzeptuak aldatu eta apurtzera dator bigarren, martxoaren 27an Txokoalden ospatuko den Truke Eguna.

AURTENGO BERRIKUNTZA

“Oraingoan, norbere abileziak gainerakoekin trukatu eta partekatze aukera eman nahi dute”

Duela sei hilabete ospatu zen lehen aldiz ekimen hau eta antolakuntzatik, Trukalariak taldetik aipatzen dutenez, “ondo atera zen”. Hainbat objektu trukatu eta kasu batzuetan oparitzeko aukera ere egon zen orduko hartan. Norberak etxean izan arren, erabiltzen ez zituen objektuak truka-



BERRERABILPENA ETA ELKAR LAGUNTZA SUSTATZEKO AUKERA IZANGO DA.

koa bultzatu nahi zuten antolatzaileek lehen edizioan.

Proba modukoa izan zen eta osagai berriekin, probatzen jarraitu nahi dute datorren bigarren edizio honetan ere, berrikuntzak txertatu baituzte antolatzaileek martxoko azken igandeko hitzordurako. Trukalariak taldetik diotenez, “ia jendeak nola erantzuten duen”.

Lagundu, laguntza jasotzeko

Berrikuntzek Denboraren Bankua egitasmo ezagunarekin dute zerikusia. Ideia bera baliatuta, denbora eta gaitasunak trukatzeko aukera izango da Txokoalden. Joan den udazkeneko estreinako edizioan, objektuak trukatzeko aukera bazegoen, Trukalariak taldetik, pauso bat gehiago eman eta oraingoan, norbere abileziak, zaletasunak, gaitasunak gainerakoekin trukatu eta partekatze aukera eman nahi dute. “Denok dugu zerbait eskaintze-

ko, eta denok dugu zerbaiten beharra”, diote Trukalariak bilgunitik. Gogorarazten dutenez, “gure beharrak harremanen bidez transmititzen dira”. Horregatik, pertsona batek duen gaitasun batekin beste bat lagunduz, berak duen behar bat asetzeko bestearen laguntza jasoko du trukean.

Trukeak ez du preziorik izango, ez behintzat, dirutan. Tratua, adostasunera ailegatzen diren bi pertsonen esku geratuko da “balekoa edo justua” izatea, antolakuntzatik ohartarazi dutenez. Euren esanetan, gauzei “guk jartzen diegu balioa”.

Txokoalden izango da azoka II. Truke Eguna

Martxoak 27, igandea. 10:00etatik aurrera. Txokoalden, Erroizpe elkarteko pareko plazan.

Antolatzailea: Trukalariak.

Informazio gehiago:

trukemerkatua@gmail.com

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
☎ **943 69 68 52 · 620 800 186**

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

TAXI

607 92 87 70
943 00 44 83

Angel (24h) **USURBIL**

Aparkaldi mugatuko 51 plaza berri egokituko dira herri gunean, erosketak egin zein zamalanetarako

Saltokietara autoz gerturatu behar duenarentzat erosketak erosoago egin ahal izateko, Hurbilago Elkartek eta Udalak egitasmo berri bat abiatzear dute. Astebete barru errotazio sistemaren bidez funtzionatzen hasiko diren 51 aparkaleku egongo dira Kaxkoan, zamanan eta herritarren erosketetara bideratuak.

Kaxkora autoz hurbiltzen denak, aurrerantzean aparkatzerakoan adi begiratu beharko du lurrera. Urdin kolorez margoturiko eremuak, zamalanetarako eta erosketak egiteko soilik baliatu ahal izango dira eta, komertzio orduetan. Atzerapenik ez bada, astebete barru, Kaxkoko aparkalekuetatik 51 plaza errotatorioak izango dira, aipatu moduan merkataritza orduetan soilik erosketetarako eta zamalanetarako erabili ahal izango direnak. Hurbilago Elkartek eta Udalak sustatutako egitasmoaren helburua honakoa da: "erdiguneko aparkaleku jakin batzuetan eta ordutegi komertzialaren

barruan, erosketa unerako bakarrik erabili ahal izango diren aparkaleku plazak ezartzea, autoen orain baino errotazio-maila altuagoa lortzea eta saltokietako bezeroei autoa aparkatzeko aukera hobekak eskaintzea, hots, plaza libre gehiago eta establezimenduetatik gertuago".

60 minutuko muğa

Norberak eremu urdinotan autoa aparkatuta zenbat denboraz utzi ahal izango duen neurtzeko sistema ere asmatua dute Udalak eta Hurbilagok. Ordutegi-diskoa baliatuko da horretarako. Bertan, aparkatze-ordua adierazi beharko du gidari bakoitzak. Diskoa autoan jarrita utzi eta aipatu moduan, asko jota hirurogei minutu baino ez ditu izango auto jabeak erosketak egiteko. Kaxkoko hamabost gune desberdinetan kokatuko dira 51 aparkalekuok.

Egunotan, egitasmo honen inguruko argibideak eskainiko dituen triptiko batzuk banatuko dituzte herritarren artean. Bertan, aparkamendu diskoaren eska-



DATORREN ASTEAN SARTUKO DIRA INDARREAN NEURRI BERRIAK.

era egiteko aukera ere izango da.

Zamalanetarako, 24 plaza

Plaza kopurua: 24. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 17:00-20:00 artean. Larunbatetan, 9:00-13:00 artean. **Aparkalekuon kolorea:** fondo urdina marra horiekin.

Bezeroentzat, 27 plaza

Plaza kopurua: 27. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 9:00-13:00 eta 17:00-20:00 artean. Larunbatetan, 9:00-13:00 artean. **Aparkalekuon kolorea:** urdina.

Noaua! Kultur Elkarteko Bazkideen Batzar Nagusia

EGUNA: Martxoak 24, OSTEGUNA
ORDUA: Lehenengo deialdia, 19:00h
 Bigarren deialdia, 19:15h
TOKIA: NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan
 Bordaberri 3, behea

GAI-ZERRENDA:

1. 2010eko memoria eta balantze ekonomikoa
2. 2011ko egitasmoak eta aurrekontuak
3. Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena
4. Galdera / erantzunak



Saizar eta Aginaga sagardotegiak

Sagardoaren Eusko Labela lortzeko interesa agertu dute

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 27 sagardotegik Eusko Labela lortzeko interesa agertu dute; tartean, baita Aginaga eta Saizar sagardotegiek ere. Horretarako, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak prentsa ohar bidez jakitera eman duenez, Kalitatea Fundazioak martxoaren 2tik abian ditu inspezio lanak. Enologo, teknikari, sumelier edota sagardogileez osaturik dagoen Kalifikazio Komite batek burutuko ditu lan hauek.

“Kontrolak egingo ditu sagastian, instalazioetan eta elaborazio prozesuan, Araudiak jartzen duenaren haritik. Jarraian, Kalitatea Fundazioak berak analisi fisio-kimikoak egingo ditu kreditatutako laborategi batean, sagardoak araudiak biltzen dituen kalitate parametroak betetzen dituela ziurtatzeko. Bukatzeko, Kalifikazio Komiteak, sagardoaren analisi sensoriala egiteko ardura duenak, esan beharko du sagardo hauek Eusko Labelerako onartuak direla. Orduan emango dizkio Fundazioak Eusko Label etiketak onartutako sagardo botilei”, berri eman dute sagardogile elkartetik.

USURBILGO SAGARDO EGUNA

“Udal eta foru hauteskundeak tarteko, aurten Sagardo Eguna maiatzaren 15ean izango da”

Ehuneko ehunean bertako sagarrarekin eginiko 800.000 litro inguru merkaturatzea espero da aurten.

27 upeltegi

Sagardogileen Elkartetik ohartarazi dutenez, “hau hasi besterik ez da egin”. Iaz sagardotarako 6-7 milioi sagar izan ziren, eta ondorioztatzen dutenez, “horrek esan nahi du 4-5 milioi litro sagardo bertako sagarrarekin egin direla. Baina, merkatuak eta prozesuak behar dituzten moldaketak kontuan izanda, sagardogileek kopuru horrekin hasi dute Eusko Labelako bidea”.



KALIFIKAZIO BATZORDE BATEK ERABAKIKO DU LABELEAN SARTZEKO MODUAN DIREN EDO EZ.

Eusko labelean interesa azaldu duten upeltegiak 27 izan dira, horietatik 19 gipuzkoarrak. Hauexek: Aburuza (Aduna), Aginaga (Usurbil), Añota (Azpeitia), Astarbe (Astigarraga), Baleio (Oiartzun), Bereziartua (Astigarraga), Calonge (Donostia-Igeldo), Etxeberría (Astigarraga), Eula (Urnieta), Iparragirre (Hernani), Itsas Buru (Hernani), Larrarte (Astigarraga), Lizeaga (Astigarraga), Ola (Irun), Petritegi (Astigarraga), Rezola (Astigarraga), Saizar (Usurbil), Urbitarte (Ataun), Urkiola (Donostia).

Beste ziurtagiri bat, Gorena

Kalitatearen inguruan, bada bestelako biderik hartu duenik. Sagardo Mahaia osatzen duten hamahiru sagardogileak Gorenak kalitate zigilu pribatua aurkeztu zuten aurreko astean Hernanin. Zigilu berriarenpean merkaturatzen hasiko dira sagardo botilak. Hurrengo astetik aurrera erosi ahal izango dira Gorenak zigiluko sagardo botilak.

Ondokoak dira Sagardo Mahaia osatzen duten sagardotegiak: Astigarragako Alorrene, Gartziategi, Gurutzeta, Mina eta Zapiain; Hernaniko Alzueta, Olaizola eta Zelaia; Donostiako Barkaiztegi; Ikaztegiatiko Begiristain, Errenteriako Egi-luze; Andoaingo Gaztañaga; Tolosako Isastegi eta Asteasuko Sarasola. Usurbilgo sagardotegirik ez da bertan.

Probaketa eta dastaketa gidatuak Sagardoetxearen eskutik

Txotx garai honetan Sagardoetxeak probaketa edo dastaketa gidatuak antolatu ditu. Helburua, garai berriko produktuaren berezitasunak lehen eskutik ezagutzeta da; dastaketa sagardogilearekin batera eginge.

Egutegia

Martxoak 19 larunbata 11:00etan Gaztañaga sagardotegian (Andoain).

Martxoak 26 larunbata 11:00etan Saizar sagardotegian (Usurbil).

Apirilak 2 larunbata 10:30ean Txopinondo sagarnotegian (Azkaine).

Apirilak 9 larunbata 11:00etan Zelaia sagardotegian (Hernani).

Apirilak 16 larunbata 11:00etan Bereziartua sagardotegian (Astigarraga).

Prezioa

Dastaketa gidatua eta pintxoak: 10 euro pertsonako.

Izen-ematea

Sagardoetxean (Astigarragan)
Tf: 943 550 575.

E-posta: info@sagardoetxea.com

Saizar sagardotegia: “Sagardo suabea eta edateko erraza bezala definitzen dute bezeroek”

Saizar sagardotegiak 1.700.000 litro inguru prestatu ditu aurtentzen, bezeroek dastatzeko. Martxoaren 26rako gainera, Astigarragako Sagardoetxeak dastatze gidatua antolatu du bertan. Izena emateko 943 550 575 telefono zenbakira deitu behar da. Sagardo Egunean itxiko ditu ateak sagardotegiak.

NOAUA! Zer nolako ezaugarriak ditu Saizarko aurtengo sagardoak?

Napo Lertxundi. Iazkoa baino gradu baxuagokoa da. Parametro analitikoak konpentsatuagoak daude. Gorputza duena, usain frutaduna.

N. Zein da sagardo on bat ekoizteko formula?

N. L. Sagarraren kalitatea. Sagarra bere heldutasun puntu hoberenean biltzea, barietate egokiak erabiltzea. Guztia, ekoizpen teknologia berriekin konbinatuta.

NAPO LERTXUNDI

“Duela sei urte sagarrondo kopurua handitzearen aldeko apustua egin genuen”

N. Sagardoak bere labela izatearen inguruan zer iritzi duzu?

N. L. Saizar labela edo kalitate bereizgarria duen sagardoa merkaturatzeko lanean hasi zela denbora da. Duela sei urte sagarrondo kopurua handitzearen aldeko apustua egin genuen eta egun, sagardo izaerako barietateen 13 hektarea sagarrondo ditugu.

N. Eta bezeroek zer diote zuen sagardoaz?

N. L. Saizar sagardo naturala, sagardo suabe eta edateko erraza bezala definitzen dute bezeroek.

N. Orain artekoan, zer moduz doa aurtengo denboraldia?



NAPOLEON LERTXUNDI, SAIZAR SAGARDOTEGIKO BILTEGIAN.

N. L. Aurtengo txotx denboraldia, modu onargarrian doa, baina bezeroen jarrera aldaketa nabarmendu behar dugu. Asteburuetan gehiago datoz. Aipatzekoa da, larunbat eta igande eguerdietako bezeroen mugimendua. Bezeroen artean aniztasuna nabari da. Gipuzkoako udalerririk desberdinetatik eta inguruko herrialdeetatik datoz. Astelehenean ostegunera berriz, sagardotegira datozen bezero gehienak eskualdeko enpresetatik datoz.

N. Izena ezaguna izatearekin dena eginga al dago? Hala ez bada, zer erronka dituzue aurrera begira?

N. L. Ezta gutxiagorik ere. Azken urteotan markari dagokionean jarrera hartze on bat lortu izanak, etengabeko ahalegina eskatzen du eta aldi berean, exijentzia maila altuagoa da. Gure helburu nagusietako bat, bezeroek izena kalitatea eta homogeneotasunaren sinonimo gisa identifikatzea litzateke.

N. Zergatik esan nahi zenieke bezeroei, “etorri Saizarrera!”?

N. L. Etorri Saizarrera. 23 kupeldun bodegaz gozatu ahal izango dute eta sagardo berria dastatu, bakailao tortilla on batekin eta txuleta gozo batekin lagunduta.

“Sagardo Ozpina eta Sagardo produktuek ere harrera ona dute”

NOAUA! Instalakuntza berriekin batera, produktu eskaintza zabalitzen joan zarete. Betiko sagardoa alde batera utzita, zer nolako harreara dute produktu berriok?

Napo Lertxundi. Sagardoak produktu izarra izaten segitzen du, nahiz Sagardo Ozpina eta Sagardo produktuek ere harrera handia duten. Sagardoak estatu mailan ere haztea ekarri digu, Madrilan, Bartzelonan eta Valentzian presente egotea, sagardotegi estiloko lokalak, taberna euskaldunak ugaltzeari esker.

Datuak

Informazioa eta erreserbak:
943 362 228 edo sidrassaizar.com
Zenbatentzat tokia: 300 lagun.
Kupel kopurua: 76.

Irekitzeko epea: urtariletik maiatzararte erdialdera arte. Sagardo denboraldia Sagardo Egunean bukatzen dute.

Martxoak 20, "Hartu nahi dut arnas" dantzatzeko eguna

Helburua errausketarentzat moratoria eskatzea da. Oraingoan ordea, modu berritzaile, alai eta koloretsu batean plazaratuko da herritarren aldarrikapen hau; bi mila lagun dantzan jarrita. Entsegu eta prestaketa lanen ostean badator, Flash Mob ekimena, grabazio eguna. Igande honetan izango da, goiz eta eguerdi parterako Gipuzkoa Zero Zabor bilgunekoek antolatu duten ekitaldi sortaren barruan. Aldarrikapena eta festa biak batuko dira martxoaren 20an, Zubietan.

Alturako grabaketa izango da igandeko Flash Mob ekimena, antolatzaileek iragarri dutenez. "Flash moba zepelin batean jarritako kamera batetik grabatzeko asmoa dago. Koreografia goitik ikusteko prestatua dago. Kamara gehiago izango da, eliza gainean eta baita ere plataformetan igota", iragarri dute antolatzaileek. Behean ikusiko direnak herritarrak izango dira. Dantzan noski, azken hilabete eta erdian hainbat entsegu saioetan koreografia ikasten trebatu ostean.

Egunotan grabazio egunaren aurreko azken entsegu saio jendetsuak burutu dira. Kaxkoan igandean eta aste hasieran, baina baita, Zubietan, Hernanin, Zarautzen, Zumaian, Donostian edota Oñatin ere. Oraindik "Hartu nahi dut arnas" aldarrikatzen duen abestiaren koreografia ikasi ez duenak, martxoaren 20ra arte gipuzkoazz.com web orrialdeko tutorialen bidez pausoak barneratu eta dantzan izena emateko aukera izango du, baita igande honetan ere Zubietan. "Goiz guztian zehar dantza irakasten ari-tuko dira frontoian eta libre dauden koa-dranteak betetzen joango dira", adierazi dute Usurbil Zero Zabor taldeak.

Aukera baten eske

Baina igandeko festa ez da egongo Flash Mob ekimenean parte hartzera doazenei zuzendua soilik, baita Zero Zabor politikak babestu eta moratoria eskatu nahi duten herritar orori ere. "Igandean denok edukiko dugu lekua Zubietan", adierazi dute antolakuntzatik. Herritarrak bertaratzea gonbidatzen



PASA DEN IGANDEKO ENTSEGUAN, TXIKI GERATU ZEN FRONTOIA.

dituzte. "Aukera paregabea beraz igandean ozen eta garbi, tinko eta alaitsu gure aldarrikapena zabaltzeko. Moratoria eskatuko dugu errausketarentzat. Denbora besterik ez dugu eskatzen, errausketa beharrezkoa ez dela frogatzeko, aukera hobeak badirela eta gauzatu daitezkeela aldarrikatzeko. Guztiok batera, herri oso bat aukera baten eske gaude-la ikusaraziko dugu", gaineratu dute.

Hiru festa-gune Zubietan

Flash Mob-aren harira, festa egun osoa izango da Zubietan:

A Gunea (Frontoia)

Ogartartekoak, barrikotea eta freskagariak egongo dira nahi dituenarentzat.

10:30-13:00 Entseguak dantza ez dakituentzat.

B Gunea (Plaza)

11:00-11:30 Amerika Latina Unida taldearen dantza latinoak.

11:30-12:00 Ibarroko Alurr taldea, euskal dantza garaikidea.

12:00-12:30 Porrotx eta Marimotots, haurrekin dantza entseguak.

12:30-13:00 Break & Freestyle, dantzarien arteko norgehiagokak.

C Gunea (Erreboteko frontoia)

13:00-13:30 D.J.

13:30 FlashMob.

13:45 FlashMob berriz.

Informazio gehiago: gipuzkoazz.com

Atez atek bi urte bete dituela ospatzeko ekitaldiak

Igandeko Zubietako Flash Mob ekimena eta astebete barru ospatuko den Bertso Kantu Jira Afaria, atez ateko bilketak asteazken honetan bete dituen bigarren urtemugaren testuinguruan antolatu dira. Baina ekitaldi eta ospakizun gehiago izango da apirila hasieran ere:

Apirilak 2, Nazioarteko Jardunaldia

